

OPORRAK BAKEAN, BIDAIA BAT BAINO GEHIAGO

Oporrak Bakean programaren helburua da urtero, udako bi hilabeteetan zehar, 10 eta 12 urte bitarteko saharar haur errefuxiatuak familia euskaldunetan edo aterpetxetan harreran hartzea.

Programa honen bitartez, haur sahararrek uda basamortutik eta errefuxiatu kanpamentuetatik kanpo pasatzeko aukera dute, eta familia euskaldunek Herri Sahararra lagundu eta beste kultura batekin elkarbizitzeko aukera.

ZERGATIK EZIN DA EGIN

Pandemiak mundu osoa jarri du hankaz gora, baita herri sahararren egunerokoa ere. Pandemiaren ondorioz, 2020an eta 2021an Oporrak Bakean programa bertan behera geratu da. Covid-19ak saharar errefuxiatu kanpamentuetan gogor jo du, baina horrez gain 2020eko azaroak 13an su-etena bertan behera geratu zen, ondorioz, soldadu sahararrak gerran daude.

MEZUAK HODEIETAN

Baina herri sahararrak gure elkartasunaren beharra izaten jarraitzen du, eta euren lurraldera, Mendebaldeko Saharara, itzuli arte euren ondoan izango garela sentiaraziko diegu. Horretarako, hodeietaz baliatuko gara kanpamentuetara mezuak helarazteko eta handik bidali nahi dituzten mezuak jasotzeko, izan ere, hodeiek ez daukate ez mugarik, ez oztoporik.

NOLA PARTE HARTU

- Haur, gazte eta helduei zuzendutako egitasmoa da: familia, agintari, mediku, begirale...
- Hodei formako paperezko eskutitz batean idatzi behar dira mezuak, erabili irudimena!
- Egitasmoa proposatu dizunaren bitartez helarazi behar duzu, beraz, mezua idatzita duzunean, eman zure begiraleari, zure elkarteari, zure irakasleari...
- Edo eskaneatu edo argazkia atera eta hona bidali: oporrakbakean@gmail.com

NON EGIN JARRAIPENA

Zure mezua bere helmugara iristen ote den jakin nahi baduzu, saharako errefuxiatu kanpamentuetatik bueltan etortzen diren mezuak ikusi nahi badituzu, edota kanpainen zehar bildutakoaren laburpen bat nahi baduzu:

Egin zaitetz Oporrak Bakeanen sare sozialen jarraitzaile:

- www.oporrakbakean.eus
- facebook: [oporrakbakean](https://www.facebook.com/oporrakbakean)

INFORMAZIO GEHIAGO

- 2022an harrera-familia izan nahi baduzu...
- *Mezuak hodeietan* kanpainen parte hartzeko datu gehiago behar badituzu...
- Irakasle edo begiralea bazara eta gaia lantzeko informazioa behar baduzu...

...zure herriko Sahararen aldeko elkartearekin harremanetan jar zaitetzke, edo Oporrak Bakeaneko helbidera idatzi. Gogotsu lagunduko dizuegu!

**DISTANTZIAN BADA ERE,
ELKARREKIN JARRAITZEN DUGU**

